

bidegileak



Ander Arzelus *Luzear* (1898-1949)

Egilea:

XABIER ARZELUS DOMINGUEZ

Lehenetariko bizkaitarra

Ander Arzelus Toledoren bizitza, euskal kazetari eta idazle baten bizitza da. Euskal kristau eta jeltzale leial honek bizitako garai historikoa ez zen bat ere erraza izan, gerra zibila eta honen ondorio latzak bete-betean bizi izan baitzituen, beste milaka eta milaka euskaldunen antzera. Goitizenez Luzear –hots, bere lehen deitura alderantziz idatzita– erabili zuen kazetaria ezagutu eta tratatu zutenak bat datoz donostiar honen zintzotasuna eta gorroto eza azpimarratzean. Amale Arzelus



Ander Arzelus Luzear (1898-1949)

bere alabak eginiko liburu baliotsuaz aparte, Andres Arzelusi buruz ez da orain arte aipamen luzerik egin, gure historia hurbilena deskribatzerakoan historialariek bere izena han-hemenka maiz aipatu badute ere. Sakaba-

natutako osagai edo pieza txiki asko bildu eta puzzlea osatzerakoan, Luzearren irudia azaldu zaigu. Gorrotoz betetako giroan borroka ausardiaz eta inolako gorrotorik gabe egiten saiatu zen pertsona baten irudia, gorrotoa ez baitzectorren Andres Arzelusen kristau fedearrekin bat. Euskal kazetaritzaren eta euskal kulturaren alde lan handi bezain isila egin ondoren, Luzear 1949.eko Abuztuan hil zen, minbiziak jota.

Andres Arzelus Toledo Donostiako Alde Zaharrean jaio zen, 1898ko abuztuaren

15ean. Bere aita, Andres Arzelus, hau ere donostiarra zen, *familia oneko* semea, kontratista (beste ofizioaren artean) eta zaletu mailan oso pelotari bikaina. 1897ko urriaren 7an Naxari Toledo andereño donostiarrarekin ezkondu eta hamaika seme-alaba izan zituen. Andres, bikotearen lehen semea izan zen. San Jeronimo kaleko 23. an ez zen, beraz, inoiz saltsarik falta izan, urteak pasa ahala gero eta gehiago baitziren mahaiondora bildutako seme-alabak. Arzelustarrak Donostiako lehenetariko bizkaitarrak –hots, Sabino Aranaren irakaskuntzen jarraitzaileak– izan ziren. Abertzaletasunarekin lotutako jaietan, San



Andres Arzelus eta Naxari Toledo, Luzearren gurasoak, Donostiako Santa Maria elizan ezkondu ziren, 1887. urtean. Hamaika seme-alaba izan zituzten, «zerrenda» luzearen lehena Ander izan zelarik



Arzelus'tar Amale'k bere aitaren omenez eginiko liburuaren azala

Jeronimo kalera begiratzten zuten balkoiak ikurrinez eta apaingarri gorri, berde eta zuriez betetzen ziren. Arzelustarren etxeko balkoien itxura ikusgarria Donostiako historia txikira pasa da, oraindik bai baitago Gipuzkoako hiriburuan kolore esanguratsu haietaz gogoratzen denik.

Garai hartako abertzaletasuna sarritan aurreko karlismoan oinarritzen bazen ere, Arzelustarren kasuan ez zen honela gertatu.

Andres Arzelusen familiaren aurrekoak politikaren alorrean zer bait izatekotan liberalak izan baitziren –donostiar gehienak bezala–, merkataritzan eta antzekoetan zihardutenen kasuan gertatu ohi zen antzera (Luzearren aitonak, esate baterako, txokolate lantegi txiki bat zuen bere etxeko behe solairuan eta *bolondres liberala* izana zen). Liberal haiek, ordea, nahiko bereziak ziren, ez baitzioten erlijioari uko egiten.



Amaletxo Arzelus eta Ander bere aita, *El Día* egunkariak 1934. urtean egin zien elkarrikuskan. Amaletxo izan zen, hain zuzen ere, euskal iratiaren historian, lehen neska «speaker»a



Artzelustarren etxea Alde Zaharreko San Jeronimo kalean zegoen, eta familia zabalak etxearen bi solairu hartzen zituen

Hamaika seme-alabetan lehena

Andres Arzelus eta Naxari Toledoren lehen semeak Marianistetan ikasi zuen, eta ondoren Injeniaritzako ikasketak egin nahi izan bazi-tuen ere ez zuen horretarako aukerarik izan. Familia gero eta zabalagoaren egoera ekono-mikoak lanean lehenbailehen hastera bultzatu zuen, eta 16 urterekin Donostiako Udal Kutxan sartu zenean Andresen soldata oso lagungarri izan zitzaien familian. Haatik, anai-arreba talde zabala laster gurasorik gabe geratu zen, aita eta ama neumoniaz hil baitzi-



Familia kristau batean jaioak Ander hain izan zen fededuna non «Cruzada»-ko Eliza espainiarraren jarrera lotsagarriak ez zuen bere fede hori ahuldu

ren oso epe laburrean, oraindik gazte zirela-rik. Bitorenek, bikotearen lehen alaba zenak, familiaren ardura nagusia hartu behar izan zuen, beste anai-arrebentzat amarena eginik, dagoeneko ezkondua zegoen Andresek nola-bait «aitarena» egiten zuelarik. Geroago Bitorenek gerra garaian eginiko lana aipatze-koa da, bera izan baitzen gerrak bete-betean harrapatu zituen Andres, Luis, Sabin eta Joxebaren alde (azken hirurok armak eskue-tan gudari aritu zirenak) atsedetik eta eten gabe lagundu zituen pertsona. Familiarenga-nako bere *betebeharra* amaitu eta berehala, gerra ondoren Bitorene moja sartu zen. Erabaki berdina hartua zuten gainera, gerra aurretik, Maritxu eta Mirentxu bere ahizpek. Mutilen artean, ordea, ez zen inor apaiz sartu, beti oso elizkoiak izan baziren ere.

Andres Arzelus –dagoeneko Luzear bezala ezaguna zena– 1923an Amale Arrieta donos-tiarrarekin ezkondu zen eta bikoteak lau seme-alaba izan zituen: Amale, Ander, Itziar eta Iñaki. Familia zaintzeaz gain, Andresen kezka nagusia euskararen eta aberriaren alde egitea izan zen. Azken bi alorretan bizi izan zituen egoerak oso aldakorrak izan ziren. XX. mendeko lehenengo hamarkadetan, Luzearrek barne-barnetik ezagutu zuen gure hiz-kuntzaren egoera larria eta euskararen alde intelektual talde txiki batek bultzatako nola-baiteko *bizkundearekin* bat egin zuen, gerra zibilak laster bortizki eten zuena. Euskara eta



Aberria irmoki uztartuta zeudenez, bata zein bestearen alde azaltzen zen jeltzaileen partidua aukeratu zuen Arzelusek.

Gerratean, beste milaka euskaldunen zoria ezagutu zuen Andres Arzelus kazetari eta politika gizonak. Heriotz zigor bikoitzaren mehatxupearan hilabete luzez bizi ondoren, sei urte eman zituen Luzearrek El Dueso, Larrinaga eta Burgosko kartzelatan. Kalera irten bezain agudo abertzaletasunaren eta euskararen alde ezkutuan lan egiten segi zuen, Hego Euskal Herrian lehenbizi eta Iparraldean ondoren. Eta berean jarraitu zuen, 1949ko abuztuaren 27an Donibane Lohizunen hil zen arte.



Ander ikasle argia eta langilea izan zen Marianistetako ikastetxean, eta behin baino gehiagotan azaldu zen Ohorezko Koadroetan eta antzekoetan. Ikastetxe hura oso ospe handikoa zen, eta ikasleen uniformea benetan dotorea

Argia-n zuzendari

Luzear oraindik oso gazte zenean, eta gorago aipatu bezala, *bizkaitarren* abertzaletasuna nahiko berria zen Gipuzkoan. Donostiako beste gazte abertzale batzuekin bildu eta euskararen eta Euzkadiren alde lanean hasi zen. Donostiako *Euzko Gaztedik* eta GBBk kalera-tutako *Gipuzkoarra* aldizkariak Luzearren lehen idazkiak argitaratu zituen. 1920. urtean, esaterako –hots, kazetariak 22 urteko adina zuenean– emakumeak politikan ere parte hartu behar zuela defenditu zuen sutsuki. Donostiako abertzaleen buru zen Mikel Urretaren Maria Zulaika emaztea, emakumeen parte hartzea aztertuko zuen batzorde

berezi baten buru egin zuten. Batzorde berean, beste burukide batzuen emazteek ere parte hartuko zuten. 1920.eko aipatu artikuluan, Luzear gazteak batzordearen osatzea txalotu eta, bide batez, emakumeek zegokien lekua eskuratzeko aurkituko zituzten oztopoak aztertu eta salatu zituen. «Ala ere oztopo oyek gaintutuko dituzte emakumeak, zailtasun oyek ez bait dute geienetan oinarri finkorik», zioen kazetariak. Euzko Gaztediak 1920.eko urrian ospatutako bere bigarren batzarrean, 300 ordezkarietatik 60 emakumezkoak izan ziren, eta beste akordioen artean emakumeak euskal prentsa hedatzeko lan egingo zutela erabaki zuten, euskal prentsa hori abertzalea izan ala ez. Luzearren pentsamoldea ezagututa, aipatu erabakiaren alde egingo zuela pentsa liteke.



Ander Arzelus eta Amale Arrieta ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten: Amale, Ander, Itziar eta Iñaki



Arzelus Arrieta senar-emaztearen lehen alaba Amale izan zen, argazki honetan Ander bere aitaren besoetan azaltzen dena

Gipuzkoako gazte abertzaleen garai hartako kezka nagusienetako bat, osorik euskaraz idatzitako aldizkari bat lehenbailehen kalera-tzea zen, nahitaezkozat jotzen baitzuten eus-kara suspertzeko. 1921.eko maiatzean, *Azka-tasuna* izeneko euskal aldizkaria argitaratzen saiatu ziren. «Jaun-Goikua eta Lege-zarra iku-rritzapean irtengo da eta ikurriñ orri dago-kion bezela Arana-Goiri'tar Sabin'ek euzkota-rrai erakutsitako irakaspenak argi eta garbi euzkaldunen artean zabaltzea izango da bere eginkizun nagusia», zioten gazteek *Euzkadi* egunkarian. Aldizkariako orrialde bat «emaku-mezkoen gaiez» izango zela jakinarazi zuten, gainera. Proiektuak ez zuen, ahatik, aurrera egin, eta euskal aldizkariaren ideia *Argia* aste-

rokoarekin gauzatuko zen, 1921ean. Luzear, *Argia*-ren fundatzaileetako bat izan zen Ambrosio Zatarain, Ricardo Leizaola, Gregorio Mujika, Victor Garitaonandia, Ramon Inzagaray eta Jesus Carrerakin batera.

Gai honetaz puntu bat argitu behar da: *Argia* aldizkaria ez da *Zeruko Argia*-rekin nahasi behar, bigarren hau bi urte lehenago –1919an, beraz– sortuta baitzen, Nafarroako kaputxi-noen eskutik. Gipuzkoan geroago kaleratuta-ko *Argia*-n ari ziren karmeldarrek astekaria-ren edukia nahikotxo «zerukoitu» bazuten ere, aldizkaria seglarrek sortu zuten, oso seglar elizkoiak eta erlijiosoak baziren ere.

Argia aldizkariaren ekimena, aurrerago euskal egunkari bat kaleratzeko saio bezala ikusi zuten askok. Andres Arzelusen oso laguna zen Jose Mari Agirre *Xabier Lizardik* berak, esaterako, euskal egunkariaren aurreproiektu bat proposatu zuen 1929an, *Argia* asterokoak abiapuntu bezala hartuz. Luzearrek eta honen lagunak sutsuki bultzatuko ideia honek bazuen, antza, aurre egiteko aukerarik, *Argia* ia 23.000 ale ere saltzera heldu baitzen bere momenturik onenetan. Paradojikoki, ordea, oso-osorik euskaraz eginiko lehen egunkaria ez zen *Argia*-koen proiektuan oinarrituko egunkari bat izan, frankistak Bilbo hartzeaz zeudenean 1937ko urtarrilaren lehenean kaleratutako *Eguna* baizik. *Eguna* egunkarian, halere, bazegoen *Argia* aldizkarian aritutako kazetaririk, Luzear, besteak beste.



Argia euskal aldizkariaren zuzendarietako bat Luzear izan zen

Etengabeko burruka

Hogeigarren mendeko bigarren hamarkadan, Primo de Rivera diktaduraren eraginez politika abertzaleak oztopo handiak aurkitu zituen eta, ondorioz, euskalduntasunak eta abertzaletasunak kulturaren eta folkloreaken ildoak aukeratu behar izan zituen, aurrera jo eta hizkuntzaren zein euskal kulturaren *Pizkundera* suspertzeko. Garai honetan, militante politikoa baino gehiago euskararen aldeko borrokalari sutsu izan zen Luzear, 1930. urtera arte ez baitzen EAJko bazkide egingo. Afiliatu zenean, ordea, konpromezu osoz, buru-belarri, egin zuen, eta, 1935ean, *Gipuzku Buru Batzako* aukeratu zuten. Ordurako, Luzear euskal kazetari oso ezaguna zen eta euskararen alde ari ziren guztiek bazekiten ez ziola Andresek aberriaren eta gure hizkuntzaren alde eskatutako lanari sekulan ere muzin egingo.

Era honetan, *Euskaltzaleak* mugimenduaren partaide izan zen, eta bertsolaritzaren, euskal antzerkiaren edota euskal poesiaren alde eginiko lehiaketa eta «egun» berezietan parte hartu zuen, idazkari bezala batzuetan, hizlari edo eta aurkezle bezala bestetan. Honela gertatu zen, esate baterako, 1934.aren maiatzaren 6an, Donostiako San Telmoko elizan *Lenengo Eusko Antzerti Egunaren* sariak aldarrikatu zituztenean. Ekitaldiaren hasieran, Luzearrek, hitzaldi baten bidez, lehiaketaren zergatiak adierazi zituen. Mahaiburuan –besteak beste– Ariztimuño *Aitzol* eta Iñaki



Euskararen aldeko ekimen askotan parte hartu zuen. Gerra Zibilaren aurretik, Luzear idazle eta kazetariak. Txirrita bertsolariaren omenez 1935ean eginiko bertso saio baten ondoren eginiko argazkian azaltzen da Ander Arzelus, Aitzol apaiza, Joxe Zubimendi eta beste euskaltzale eta bertsolarirekin batera

Barriola (*Euskaltzaleak*-ekoak, hauek ere), Toribio Alzaga, Antonio Maria Labayen, Lopez Mendizabal eta Monzon, Irazusta, Pikabea eta Leizaola Gipuzkoako diputatuak egon ziren. Urte berean, *Euskaltzaleak*-eko zuzendaritza berria aukeratu zutenean, Telesforo de Monzon izendatu zuten presidente eta Jose de Ariztimuño *Aitzol* idazkari. *Euskal Idazleak* izeneko batzorderako, Andres Arzelus *Luzear* eta Primitivo de Teletxea aukeratu zituzten. Bilera Zarautzen izan zen eta, amaitzerakoan, aurreko urtean hildako Jose Mari Agirre *Xabier Lizardi* zenaren jaiotetxean oroitarria ezarri zuten bildutakoek, 1937an Zarautzen sartu eta berehala frankistek hautsi eta kenduko zutena.

Autonomi estatutua

Politikan, EAJk Autonomi Estatutuaren alde eginiko kanpainetan parte hartu zuen Luzearrek, eta dokumentu honen historiaren momentu garrantzitsuak bete-betean bizi izan zituen. 1936. urteko urrian, esaterako, Jose Antonio Agirre, Frantzisko Basterretxea, Juan Ajuriaguerra eta Andres Arzelusek Madrilera hegan egin zuten, Parlamentuak hurrengo batzarrean Estatutua onartuko zuenaren hitza Largo Caballeroren ahotik entzuteko. Madrilera eginiko bidai hura oso arriskugarria izan zen, Euzkadetik Madrilera heltzeko frankistek hartutako eskual-



Errepublikara garaietan, EAJren borroka nagusia Autonomi Estatutuaren aldekoa izan zen. Ander Arzelus jeltzaleak ere Estatutuaren alde egin zuen eta EBBko beste burukide batzuekin batera Madrilera eginiko bidai arriskugarri batean parte hartu zuen, Estatuko hiriburuan Estatutuaren azken zehaztasunak Largo Caballerorekin ondo lotzeko. Bidaia hegazkin txiki batean egin zuten, dagoeneko frankistek dominatzen zuten eskualde zabala baten gainetik pasata

de zabala airez ozta-ozta inguratu eta azken partea zeharkatu behar izan baitzuten euskal ordezkariak, hegazkin txiki batean, Madrilera joaterakoan zein berriro Euzkadira itzultzerakoan.

Politikan nabariki parte hartu bazuen ere, Luzearrek kazetari eta idazletzat gehiago jotzen zuen bere burua, politikari klasikotzat baino. Bere lanaren bidez euskararen alde egiterakoan, Euzkadiren alde egiten zuela pentsatzen zuen. Bere Aberria euskara zela esan liteke. Eta, kristau zintzoa zenez, euskarak eta Aberriak Jaungoikoarengana zeramatatzela uste zuen. Eta doktrina kristauaren gauzatzeak –bide batez– gizarte mailako Justiziara. Kristaua zenez, bere aberriaren aldeko gerra inolako gorrotorik gabe egin behar zuela, uste zuen irmoki. Jarrera hau ez zen –ez horixe!– etsai porrokatu bezala aurrean zituen *gurutzedun katoliko* eta Eliza ofizialarena, ezta ere burkide zituzten «gorriena». Kontraesan eta paradoja gogor hauek gainditzeko saiatu ziren Luzear eta bere lagunak, gerra ere maitasunaz irabaziko zutelakoan.



Euskararen eragile

Hogeigarren mendeko lehen hamarkadetan, oso handia zen informabideek zuten garrantzia, eta ideologia bakoitza «bere» komunikabidea sortzen eta finkatzen saiatzen zen. XX. hamarkadan, esaterako, hogeiren bat ziren Gipuzkoan argitaratzen ziren egunkariak, esparru politiko osoa isladatzen zutelarik. EAJ, hasiera-hasieratik konturatu zen informabideen garrantziaz. Gipuzkoan, jeltzaleek *El Día* egunkaria argitaratzen zuten, eta Luzear egunkariaren *Euskal Orria*-ren ardura-dun izendatu zuten. Ordurako *Argia* aldizkarian fundatzaile, zuzendari eta idazle izandako



El Día egunkarian, hasieran «Euskal Orria» eta ondoren «Euskal Gaiak» izeneko atalen arduraduna izan zen Luzear euskal kazetari gaztea

Andres Arzelusek lanari ekin zion. *El Día*-n, hasieran, euskara *Euskal Orria*-ren bidez gauzatu bazen ere, Luzearrek aipatutako orriaren *ghettoa* hautsi eta euskaraz idatzitako herrietako berriak gazteleraz eginiko orrialdeetan tarteka argitaratzeari ekin zion, «irakurgai-jantzitxoentzat» (berak zioen bezala) *Euskal Gaiak* izeneko beste atal finko bat egunero

egiten zuen une berean. Luzear, euskara «testimoniala»-ren beldur zen, bestalde, eta –beste euskal idazle gehienek egin zuten bezala– «oso euskaltzale» omen ziren pertsona askoren axolagabekeria salatu zuen. 30. Hamarkadako hasieran ere, Beñat Estornes Lasaren *Euskal-Edestia* euskaratu zuen Arzelusek, *Euskaltzaleak*-ek argitaratu zuena.



Estornés Lasaren *Historia Vasca* Luzearrek euskaratu zuen

Antzerki lanak

Bazegoen, bestalde, 30. hamarkadaren hasieran, euskaltzaleek euskal giroa suspertzeko ondo tajutu nahi izan zuten beste arlo bat: antzerkiaren mundua. 1932tik 1934ra arteko urteetan, hain zuzen ere, hirurehun antzezlandik gora idatzi eta antzeztu zituzten Gipuzkoan, ehunen bat idazlek sortutako antzerki lanak. Antzezlari gehienak nahiko arinak eta barregarriak ziren –Euskal Herrian koka-tutako komediak, kasu askotan– eta oso bakanak, ordea, obra «ideologikoak» (*Libe, Iru gudari...*). Euskal militante bezala, Luzearren arlo honetan ere bere laguntza eman nahi izan zuen. *Kirtenen gauzak, Neskamearen marmarrak, Diru gosea, Gibelaundi...* dira idazle donostiarrak garai hartan idatzitako antzezlantako ezagunenak. Obra haiek momentu hartan izan zuten baliorik nagusia euskara bultzatzeaz gain euskaldunak bere hizkuntzan dibertitu eta entretenitzea izan zen.

Antzerki giroa ez zen, bestalde, Artzelustarren artean arrotz. Familiako alaba zaharrena zen Bitorene, esate baterako, Toribio Alzagak idatzitako eta zuzendutako antzezlantetan antzezlari izan zen 20. hamarkadan, eta Alzagak berak egokitutako Pierre Loti-ren *Ramuntxo* obran ere parte hartu zuen Luzearren arreba zaharrenak. Andresek gerra aurretik antzezlariak idatzi bazituen, gauza


bera egin zuen Burgoseko kartzelan eman zituen bost urteetan. Bigarren garai honetan, halere, bere antzezlariak haurrentzat idatzi zituen, bere lau seme-alabetan pentsatuz, seguru asko.

Errepublikaren garaian eta gerra hasi arte euskal abertzaleek erabilitako beste propaganda bideetako bat herriz herri emandako hitzaldiak izan ziren. Hitzaldiok ez ziren gehienetan zuzen-zuzenean politikoak izaten, euskal historiaz eta kulturaz alde hau edo eta beste hura azaltzeko antolatutako hitzaldiak baizik. Luzearren jendaurrean hitz egitea gustoko ez bazuen ere, zenbait hitzaldi ematera bultzatu zuten. Gure eskuetara hitzaldi haietako baten gidoia heldu da: Jon Garbizu *Zubigar* olerkaria 1930ean hil zenean, Luzearren hitzaldi bat egin zuen bere lagunaren omenez, olerkariaren jaioterri zen Lezon. Aipatu bezala, Arzelus kristau zintzoa zen –integrista samarra, antza– eta hitzaldia hasi aurretik minutu bateko isilunea eskatu ordez, hildakoaren alde Aita Gurea, Agur Maria eta Aintza errezatza gonbidatu zituen bertaritutako entzuleak, «arrotzek» sartutako ohi-tura –minutu bateko isilunearena, hain zuzen ere– gogor salatuz. Hitzaldi berean, *Zubigar* olerkiaren lanen balio nagusiak goraiatu zituen hizlariak, balio horiek Jaungoikoa, Sendia eta Aberria zirelarik.

El Libro de Oro de la Patria

Luzearrek ohore handiko enkargu bat hartu zuen 1934an. Hain zuzen ere, *El Libro de Oro de la Patria* izeneko liburu berezirako artikulu bat idaztea. Aipatu liburu, garai hartan Euskal Herrian argitaratu zen obrarik zaindu eta luxozkoena izan zen. Bere helburu nagusia, Euskal Herriko kulturaren eta artearen irudi orokorra azaltzea zen. Ia obra osoa, ordea, erdaraz idatzia izan zen eta Luzearren idazlana izan zen, hain zuzen ere, gure hizkuntzan idatzitako ia bakarra. Liburu argitaratzeko, *Gurea* argitaletxeak oso esfortzu handia egin zuen: liburuak larruzko azalak zituen, oihalez eginiko eta azalera jositako Euskal Herriko harmarria, oso paper ona, kolore ederrez argitaratutako marrazkiak eta euskal margolarien koadroen irudiak. Gainera, Irlandako

De Valera presidenteak bere argazkia eta eskuizkribua bidali zituen libururako, euskaldunak agurtuz eta zorionduz. Bestalde, liburu argitaratua izan baino lehentxeago hil zen Francesc Maciá-k obrarako idatzitako lan bat argitaratu zuten... Pertsonaia handi hauen lanen artean, Luzearren idazlanak liburuaren orrialde t'erdia hartzen zuen. *Euzkadi, agur!* izenburupean, Euskal Herriaren irudi bukoliko baten bidez, Aberriaren, familiaren eta kristautasunaren balioak goratu zituen Arzelusek, hain zuzen ere garai hartan EAJko abertzaletasunak azpimarratzen zituen balioak. Badira, ordea, aipatu artikuluan Luzearren ikuspegi zabala adierazten duten hitzak. «Zure bideak –esaten zion idazleak Aberriari– asmo zindoz datorrenari irikitako beso maitekorrak dirala esango nuke.»



«Euzkadi, agur» artikuluan Luzearren sinadura

Irratia, euskararen hegaltzidea

Hogeigarren mendeko bigarren hamarkadan, ordea, kazetariak eta politikak bide berri eta aparta aurkitu zuten, berriak zein ideiak lau haizeetara hedatzeko: bide berri hori irratiaren zen. Eta euskaltzaleak laster konturatu ziren irratiak gure hizkuntza eta kultura sustatzeko eskaintzen zuen aukera paregabea. Beste arlo askotan bezala Estatu espainiarra irratiaren alorrean ere berandu eta trakets hasi bazen ere, euskaldunek berehala ekin zioten euskara irrati uhinen bidez hedatzearen lana. Horretarako, dagoeneko prentsan ari ziren euskal kazetari gehienak irratiarako lanak egiten hasi ziren. 1932. urtean, Joxe Zubimendi idazle eta poeta eta Andres Arzelus –Txomin

Olano pianojole «inprobisatzailearen» laguntzarekin– euskal irratiaren historiaren lehen kazetariak bilakatu ziren. Donostiako Euzko Gaztediaren laguntzaz, astero-astero ordu beteko euskal irrati saioa egiteko konpromezua hartu eta bete zuten. Meritu handia izan zuten, irratiarako lanaz gain Zubimendik zein Luzearek prentsan ere lan egiten segi baitzuten.

Eta irratiak lana ez zen, alafede lan erraza! Asteazkenero, arratsaldeko 8,30etatik 9,30ak arte, *Radio San Sebastián* izan aurretik *Unión Radio* zen emisoraren mikrofonoen aurrera euskal bertsoak, abesbatzak, hizlariak, musikariak etabar eraman behar zituzten. Kontuan izan behar da ez zegoela garai hartan kasik



Joxe Zubimendi Luzearekin batera euskal irratsaioen egilea izan zen

euskal grabaziorik, eta eskainitako programak, beraz, zuzenean egin behar zituztela. Beraz, Zubimendiren eta Arzelusen kezka nagusia herri hartako abesbatza hura edo eta ia mendi muturrean bizi zen bertsolari hura asteazken arratsaldez emisorara garaiz helaraztea zen.

Euskarak medio berriaren bidez hartzen zuen indarra eta egiten zuen *hegalaldia* ikusita, kazetariok eta euskal entzuleak ere pozik ziren. Joxe Zubimendik bertso batzuk idatzi zituen propio asteroko euskal irratsaioen hasieran irakurtzeko, Leizarragaren «Euskara, jalgi hadi mundura!» gogora ekartzen dizkigutenak. «Ua, ua, emendik otsa! Abil azkar, pizkor, abotsa!» –zioen poemak– «Gure izkuntzaren agur laztana ludiko euskeldun danorengana ortxe dijua. Ua! Ua! Eusko erriko anai danori eman akiok laztan beroa. Bere barrendik irtendakoa dek gaurko oiua: Ua! Ua!».

Luzearrek eta Zubimendik landutako irratsaioak egundoko arrakasta izan zuen. Garai hartan irratigailu asko ez zegoenez, irratia entzuteko gailua zuten lokaletan eta etxetan euskaldunak bildu eta, asteazkenero, hegan zetorkien euskara entzuten omen zuten, adi-adi. Ipar Euskal Herrian eta baita Londresen ere euskal saioak entzuten zirela jakin zutenean, bi kazetariok harrituta geratu omen ziren, «Ua, Ua!» ziotenean ez baitzuten uste euskara hain urrutira «bidaltzen» ari zirenik!

Ehun euskal irratsaio

Bi urtetan, Andres Arzelusek eta Joxe Zubimendik ehun euskal irratsaio prestatu zituzten. Luzearren kasuan, kazetariak Amaletxo bere alaba ere *speaker* edo esatari lanetara jarri zuen, mikrofonoen aurrean. Neskak bederatzi-hamarren bat urte zituen garai haietan. *El Día*-k Luzearri eta Amaletxori 1934an eginiko elkarrikuska batean zera adierazi zuen Arzelusek, Bartzelonako emisoran Toreski izeneko sabel-hiztun edo bentrilokuo batek *Emilio* pertsonaia sortu eta haurren artean sekulako arrakasta izan zuela jakitera koan, Amaletxo bere alabatxoa irrati lanetara jartzea bururatu zitzaiola. Amaletxo *Poxpolinak*-etan ere bere aitak idatzitako monologoak eta obratxoak erreztatzen eta aurkezten ohituta zegoenez, ondo egokitu zitzaion mikrofonoen aurreko bere lan berriari. Era honetan, Amaletxo Arzelus–Luzearren lehen alaba– euskal irratiaren historiako lehen emakume *speaker*-a bilakatu zen.

Irratian eginiko lana hain izan zen arrakastatsua non, 1934. urteko urtarrilaren 28an, bi ordu luze iraun zuen egundoko euskal jaialdia antolatu zuten Donostiako Kursaaletan, euskal irratsaioen ehungarren saioa ospatzeko.



Ander Arzelusek eta Joxe Zubimendik bultzatutako euskal irrati emanaldien ehungarren irratsaioa Kursaaletan eginiko jaialdi batez ospatu zuten, eta *El Día* egunkariak jaialdiaren berri zehatza eman zuen



Atzerriko zenbait irrati emisorek hedatu zuten jaialdian, Donostiako Euzko Gaztedik irrati gailu eder bana oparitu zien Luzearri eta Zubimendiri. Bestalde, Gasteizen bildurik zegoen Euzkadi Buru Batzarrak telegrama bidali zien zoriontzeko irratsaio berezia entzuteko aukera izan ez bazuen ere! Bilera ondoan eginiko bazkariko jatetxean irrati gailurik aurkitu ez eta EBBkoek ehungarren saioa entzuteko aukera galdu zuten. Halere, EAJko buru nagusiek zorion telegrama bidali zien Kursalen omendutako «abertzaletasunaren eredu» ziren bi euskal kazetariei. Ez zuten gutxiago merezi, urte bakoitzeko 52 irratsaioak egiteko Donostiako Euzko Gaztedik emaniko 2.000 pezetak ondo baino

hobeto administratu eta aurrekontuari pats ona atera baitzioten Zubimendik eta Arze-lusek!

Irratiko lana izan zen, beraz. Luzearren lan nagusienetako bat. Alde batetik, gure hizkuntza garai hartan oso informabide berria zen irratiaren hegaletara beste kazetari eta laguntzaileen laguntzarekin igoarazi zuelako (informabidea hain zen berria non euskaldunek hitz berri bat asmatu behar izan zuten medioa izendatzeko. Zubimendik, esaterako, aipatu dugun «Ua Ua! poesiaren hasieran «Irratizkiñez, radioaz esana», idatzi zuen). Euskal saioek oso zirrara handia sortu zuten euskaldunengan, «gure endaren izkuntza zarra» Euskal Herri osoan eta munduan zehar hedatu baitzuten.



Luzearrek eskuz idatzitako lerro hauek momentuko urduritasuna islatzen dute. Euskaraz eta gazteleraz idatzitako lerroak klandestinitateko «Radio Euzkadi» ko mikrofonoetan irakurriko zituzten berehala, euskaldunen izpirituak suspertze asmoz. Frankistak behin eta berriz ahalegindu ziren euskal boz haiek isilarazten

Donostiatik Bilbora

Irratiak propaganda politikoa egiteko zuen indarra oso handia zen. Eta 1936ko uztailaren 18an faxista espainiarrek gerra zibila piztu zutenetik, irratiaren garrantzia izugarri areagotu zen, idatzitako prentsa argitaratzeko abertzaleen aukerak murriztu ziren hein berean.

Indar frankistek Gipuzkoa hartu zutenean, abertzaleek eta errepublikarrek Donostiako irrati emisora desmontatu eta Debara eraman zuten, eta herri honetan *Radio Euzkadi* bezala emititzen hasi zen. Luzearrek, Zubimendik eta hauen ingurukoek aldaketa honetan egindako lana zehazterik ez badago ere, 1937an Ander Arzelus, Amale emaztea eta bion lau seme-alabak Bilbon ziren. Aipatu urtearen hasieran *Eguna* euskal egunkariaren hirugarren zenbakian kazetari donostiarraren artikulua bat argitaratzeaz gain, 1937ko martxoan *Radio Bilbaon Euzkel Orduba* izeneko irratsaioa hasi ziren emititzen, astean behin, Donostian gerra aurretik bi urtez asteazkenero egiten zen irratsaioaren antzera.

Luzearren esperientzia oso baliagarria izan zitzaion Bilbon *Euzkel Orduba* antolatu zutenei. Are gehiago: Bilbon eginiko *Ordu* horietako batean Amaletxo Arzelus *speaker*-ak bere aitaren *Neskamearen marmarrak* monologoa irakurri zuen eta, ondoren, *Garo usaina* izeneko obratxoa, oraingoan Itziar Arzelus bere ahizparekin batera.



Euskaldunok nahiko bitxiak gara, lehen euskal egunkaria frankistek inguratutako Bilbon kaleratu baikenuen, 1937ko urtarrilaren lehenean. Luzear *Egunan* buru-belarri aritu arren, oso artikulua bakanak izenpetu zituen. Horieta baten izenburua («Ez gorrotorik»), hain zuzen ere) oso esanguratsua irudituz zaigu, kazetariaren filosofia ondo baino hobeto islatzen baitu

Donostian eginiko euskal irratsaioak Bilbon mantentzeko lan egiteaz gain, beti hain beharrezkotzat jo zuen euskal egunkarian aritu zen Luzear. Hain luzear eskatutako euskal egunkaria, noiz eta faxista espainiarrek ia Hego Euskal Herri osoa hartuta zutenean sortu zuten Bilbon! *Egunak* 1937ko urtarrilaren lehenean ikusi zuen bere lehen argia. Egunkari honen bidez izan dugu –zeharka bada ere– Luzearrek Bilbon garai gogor haietan eginiko lanaren eta joan-etorrien berri.

Zenbait ekimenetan present

Eguna egunerokoan kazetari donostiarrak izenpetutako idazki bakarra aurkitu badugu ere, lan zabala egin zuen Andres Arzelusek hain nahitaezkoa ikusten zuen euskal egunkarian (Luzearrek izenpetutako lantxo bakar horrek oso izenburu esanguratsua du: *Gorrotorik ez!*, berau izan baitzen beti euskal kazetari honen etengabeko leloa). *Egunan* lan egiteaz gain, Andres Arzelusek Euskal Gobernuaren boletina euskarara itzultzen zuen, eta 1937an frankistak Bilbon sartu arte Bizkaiko hiriburuan euskararen alde egin ziren ekitaldi

askotan parte hartu zuen. 1937ko otsailaren 12an Aranzadi'tar Engartzi Kizkitza hil zen, eta berehala bere idazlan guztiak argitaratzeko dirubiltze publikoa antolatu zuen *Egunak*, eta egunkariak argitaratutako diru-emaleen zerrendetan Luzear azaltzen da. Garai hartako 10 pezeta eman zituen, hain zuzen ere. Bilbon Euskal Idazleen aldeko elizkizunak eta omenaldia egin zirenean, aipatu egunkariak Luzearren parte hartzea seinalatzen du, eta Bilbon eginiko VI. *Aberri Egunean* ere Andres Arzelus Begoñako elizkizunetan present egon zen, Ajuriagerra eta EBBko beste burukide batzuekin batera. Aipatu euskal idazleen aldeko omenaldiak bazuen momentu hartan oso eduki handia, asko baitziren dagoeneko 1937an frankistek hildako euskal idazleak, Ariztimuño Aitzol hauetako bat zelarik. Beste idazle asko, gainera, armak hartuta, kartzelaturik, zigortuta edo eta zapalduta bizi zen. Donostian, esaterako, herriak hain maite zuen 70 urteko Toribio Alzaga bera atxilotu zuten faxistek, hiriburuan sartu bezain agudo.



Luzearrek itzultzaile bezala eginiko lan garrantzitsuenetako bat Euskal Gobernuaren Egunkari ofizialaren euskaratze lana izan zen



EBBko burukide askok Burgosko kartzela ezagutu zuten. Argazkian, Luzear beste burukide batzuekin azaltzen da, besteak beste, Ajuriagerra eta Rezola

Preso eta iheslari

rankistek azkenik Bilbo hartu zutenean, Luzearrek milaka eta milaka herritar, gudari eta politikoren zorigaitza sufritu behar izan zuten. *Santoñako Hitzarmenaren* ondorioz gudariek armak utzi behar izan zituztenean, Ander Arzelusek uko egin zion pertso-

nalki ihes egiteko izan zuen aukerari eta, EBBko beste burukide batzuekin batera (Alberdi, Unzeta, Artetxe, Solaun eta Ajuriaguerra, hauen artean) preso eginiko milaka gudarirekin gelditu egin zen. El Dueson preso fusilake-tak hasi zirenean, Ajuriagerrak gose grebari ekin zion, protesta egiteko, eta

bere horretan segi zuen, preso zeuden EBBko bere kideek protestari uzteko agindu zioten arte. Honela zioen aipatu aginte-notak: «Reunidos en El Dueso hoy nueve de Septiembre, Arzeluz, Markiegi, Alberdi, Unzeta, Artetxe y Solaun, acuerdan comunicar a Ajuriagerra que en evitación de un conflicto mayor que pudiera resultar más perjudicial para todos, debe desde este momento depone su actitud y empezar de nuevo a alimentarse. El Dueso, 9 de Septiembre de 1937». Egun ba-tzuk geroago, aipatu nota honen sinatzaileetako bat –Debako alkate izana zen Florentzio Markiegi, hain zuzen ere– fusilatu eta beste sinatzaile guztiak heriotza zigorrera kondenatu zituzten. Luzearrek, bere aldetik, El Duesora heldu bezain agudo gerrak sakabanutako beste hiru anai gudariak momentu laburrez aurkitzeko aukera izan zuen, gerra hasi zeneko lehen aldiz. Andres, Luis, Sabin eta Josebaren elkarren arteko besarkadak ez zituzten lau anaiok bizitza osoan ahaztuko. Ondoren, Luzear EBBko kide zenez, beste ziega edo zelda batera eraman zuten –hain zuzen ere 21. zenbakiko ziegara–, bertan hertsai baitzituzten frankistek EAJko buru nagusiak.

Eutsi goiari!

Larrinagan, presoak oso egoera gogorrean bizi behar izan zuten, 900 pertsonarentzako kartzela honetan ia hiru mila pilatu baitzituzten frankistek. Ez zuten ordea euskal presoek horregatik etsi, Luzearrek Luis bere anaiari Larrinagako kartzelatik idatzitako gutunek azaldu bezala. Gutunetan, animoei eusteko kartzelan euskal presoek mantentzen zituzten ohituren berri ematen dio Andres Arzelusek. 1937ko Santo Tomas eguna, esate baterako, «umore onez eta txorizo asko janaz» bizi omen zuten, «eta Gabon gauerako egundoko afaria prestatzen ari gara». Donostian familiartean egun berezi horietan urtez urte bizitako giro goxoa gogoratzen du Luzearrek: «afalondoko gure kanta haiek, Jesuitetan Gauerdiko Mezetara joan arte kantatzen genituenak etortzen zaizkit bihotzera». San Sebastian egunean, danborrada egin omen zuten presoek Larrinagan. Hiru gutunetan, Jainkoagan zuen konfidantza azaltzen du kaze-tariak. «Eska diezaiogun behar dugun guztia, batez ere bakea... eta Goiko Jaunari gure sakrifizioak opa diezazkiogun, Aberriak sakrifizio haundiz eraikitzen baitira». «Anai-arreba guztiok berriro elkartuko garen egunean, a zer poza sentituko dugun!... Aurrera, bada, konfidantza osoz, eta gorde dezagun Jainkoarengan dugun esperantza!», dio kazetariak.

Espetxean aldizkaria

Euskal presoek Santoñako El Dueson eta, ondoren, Bilboko Larrinagan bizi izan zituzten garai latzenak, gau erdian presoak ziegetatik dozenaka irtenarazi eta fusilatzeari ekin baitzioten frankistek. Ez zituen ordea heriotza giro honek euskal presoak kokildu. Larri-nagako kartzelan, *Espetxean* izeneko aldizka-ria argitaratzeari ekin zioten Luzearrek eta honen kartzelakideek. Aldizkaria EAJk kar-tzelan izan zuen argitarapena bilakatu zen. Eskuz oso txukun idatzitako aldizkaria eskuz


esku pasatzen zuten, eta presoek izpiritua indartzeko artikuluak idazten zituzten. Ez zen gainera aldizkarian kantarik falta. Aldizkari honen argitaratzea Burgoseko Presondegi Zentralean segi zuten Luzearrek eta honen lagunek, oraingoan kartzelan zegoen inprentagailuaz ezkutuki baliatuz. Aldizkariak preso-en berriak eta hauen idazlanak argitaratzen zituen. Kartzelakideen animoak berotzeko edo, Luzearrek eta Salvador de Rada musikari irundarrak himno bat konposatu eta argitara-tu zuten *Espetxean* aldizkarian.

Duesonko espetxeratuak ereserkiak. 1934. Luzear eta Rada. of. 11/11/34

Luzearrek asko maite zuen musika. El Duesoko kartzelan, Rada irundarrak konposatutako ereserkiari euskal hitzak jarri zizkion Ander Arzelusek, oso egoera larrian zeuden presoek izpiritua indartzeko



El Dueson kartzelatuak izan bezain laster, euskal presoek *Espetxean* izeneko aldizkaria idazteari ekin zioten, eskuz hasieran, eta kartzelako inprenta ezkutuan erabiltz Burgosen. Luzear kazetariak gogo handiz bultzatu zuen ekimena



Burgosko kartzelan, Luzear euskarako irakasle bilakatu zen eta, bere lana errazteko, euskal aditaz txostena idatzi zuen. Jakina, euskara erabat debekatuta zegoenez, «Verbo alemán» izenburupean idatzi zuen. Euskal presoek «alemana» ikasteko zuten grina ikusita, txundituta geratzen omen ziren kartzelariak!

Aldizkariako lana ez zen izan Luzearrek Burgoseko kartzelan egin zuen bakarra. Alde batetik, haurrentzako ipuinak idatzi –*Marra-katxarra*-ren kasuan bezala– edo itzuli zituen –*Kilkir-Abestiak* (Dickens-en *Christmas Tales* ipuinen itzulpena), *Gonagorritxo...*– eta Luca-rini kartzelakide anarkistaren marrazki ede-rrekin osatu zituen. Bestalde, euskara bikain menderatzen zuenez, Andres Arzelus gure hizkuntza ikasi edo landu nahi zuten kartzela-kideen irakasle oso estimatua bilakatu zen

presondegian. Bere ikastaroen lagungarri, euskara ikasteko metodo bat ere landu kar-tzelan, euskara ez baizik «alemana» ikasteko zela, gartzelako Zuzendaritzari esanaz. Arze-lusen ikasleetako bat Koldo Mitxelena izan zen. Mitxelenak ondoren elkarrikuska ezber-dinetan adierazi zuenez, Luzearrekin ikasi zuen euskaraz ondo idazten. Antza, Ander eta Koldo oso lagunak egin ziren, eta Mitxelena oso zorrotza eta ironikoa zenez sarritan ziri-katzen zuen donostiarra, honen erlijiotasuna

izugarria zelako. Mitxelenak adierazi zuenez, Luzearrek bazuen presondegian kristau ia-ia integristaren fama, eta Francoren «nacional-catolicismo» espainiarrak presoan artean banatutako aldizkariak guztiak bildu eta txiki-txiki egiten omen zituen, «gazteria usteldu ez zedin». Arzelus eta Mitxelena egun berean utzi zituzten kalean –1943ko urtarrilaren 13an, hain zuzen ere– eta elkarrekin egin zuten trenetara Donostiara bidaiara. Koldok urte asko geroago kontatu zuenez, «Andres Arzelus eta biok Gipuzkoako hiriburura heldu ginenean, ni neu *ovni* bat bezain arrotz sentitu nintzen. Orduan, maletak eskuetan, Abenidaraino heldu eta, bertatik, Luzearrek telefonoz Errenderira deitu zuen, ni tranbian helduko nintzela abisatzeko». Zazpi urte luze

eta gogor pasa ondoren Koldo etxera heldu zenean, «Ze? Heldu al haiz?», esan omen zion hitzez hitz bere amak.

Artean, Andres Arzelus bere etxera heldu berria zen. Amale bere alabak ondo gogoratzen du oraindik –geroztik ia 60 urte pasa badira ere– zer-nolakoa izan zen bere aitaren etxeratzea. «Etxean geundela, ateko txirrina jo eta aitaren arreba zen Bitoreneri 'aita da!' esatea bururatu zitzaion, aita aurrez ezer jakin arazi ez bazigun ere». Aitaren ustekabeko etxeratzeak ustekabea hartu zituen, beraz, bere familikoak. «Gure ama etxeko gela batean irakaskintzan ari zan, eta nor etorri zan adierazi genionean ia ondoeza sartu zitzaion, aintbesterañokoa izan zan barruko poza!»



Ehundaka euskal presok urte luzeak eman zituzten Burgoseko «Prisión Central» zelakoan, eta ondotxo ezagutu zituzten frankismoaren ezaugarri latzenak. Halere –edo agian horregatik– etengabe egin zituzten «gerorako» planak. Tamalez, aliatuek ez zuten Franco kendu nahi izan, eta euskaldun askoren itxaropenek porrot egin zuten

Gerra ondoko nekeak

Luzearrek kartzelatik irtetea aurkitu zuen egoera ez zen, noski, samurra izan. 1943an, frankistak eta hauek Euskal Herrian zituzten morroiak jaun eta jabe ziren (gerra «ofizialki» 1939 bukatu zenetik 1945. urtea arte 25.000 pertsona fusilatu zituztela onartzen dute gaur iturri frankistek). Bere familiatik irten gabe, Dunixi eta Manuel anaiak lanik gabe utzi zituzten faxista espainiarrek Donostiako Udal Kutxan. Halere ustekabeko laguntzak eta lagunak aurkitu zituen Luzearrek. Era hone-tan, bere laguna eta garaje baten jabea zen Nemesio Lealek lanpostu bat eskaini zion Madrilen. Andresek eskaintza eskertu arren hasieran uko egin zion, ez baitzuen berriro Euskal Herritik urrundu nahi, are gutxiago giro itogarrian bizi zen gerraondoko Madrilen bizitzeko. Halere, urruntze-aginduaz zigortu zutenean Madrileko lana onartu zuen. Estatuko hiriburuan Luzearrek sufritu zuen bakardadea kartzelakoa baino okerragoa izan



Artzelustarrak gerraondoko Madril itogarrian hilabete batzuk eman behar izan zituzten. Andertxo semea falta den irudi honetan ikusten dugu Anderren familia, Madrileko kaleetan zehar paseatzeen. Garai latzak bizi arren, irribarrea zaie nabari, urte luzez kartzelan egoniko aita erdian hartuta

omen zen, kartzelan lagunez inguratuta zegoen artean Madrileko giroa etsaiez beteta baitzegoen. Andresen egoera ikusita, Leal bere lagun leialak Madrilen etxebizitza bat aurkitu zuen Arzelus familia osoarentzat. Familiak urte t'erdi inguru eman zuen Madrilen, hain zuzen ere 1945eko irailean Luzearrek Hernaniko *Almidones Remy* lantegiko administrazioan lana aurkitu zuen arte.

Joan-itzuli hauetan ez zuen, jakina, Luzearrek euskararen eta Euzkadiren aldeko bere lana baztertu. Kartzelatik irteterakoan Donostiara heldu bezain laster, «bere» parrokia zen Santa Mariako elizan inguruetakoko gazteak bildu eta abertzaletasunaz mintzatzen omen zitzairen. Madrilen eman zuen denboran zer egin zuen jakiterik izan ez badugu ere, ez dugu ahortzi behar bere lagun zintzoenetako batzuk Carabanchelen preso zeudela, hauen artean Joseba Rezola, eta honela izanik seguru gara Luzearrek Madrileko bere egonaldia lan politikoa egiteko erabiliko zuela, ez baitzen lagunak eta militantzia «ahazten» dituzten horietako pertsona.



Joseba Rezola eta Aurora Lopez de Goikoetxea Artzelustarren oso lagunak izan ziren, argazki honek ondo adierazten duen bezala. Behin batez, Luzearren laguntzari esker, Rezolak tren batean atxilotuta zihoan Rezolak goardia zibilengandik ihes egitea lortu zuen

Rezolari ihes egiten lagundu

Honen adibide, Madriletik Donostiara itzuli zenean bizi izan zuen balentria edo abentura dugu. Hernaniko bere lanean ari zela, Luzearrek berehalako ohar bat hartu zuen: Madriletik zetorren trenean, Joseba Rezola bi goardia zibilek «zainduta» zekarten Irungo komisaldegian «egokiro» itaundua izateko. Antza, frankistak prest zeuden Rezola torturatu eta honek euskal erresistentziaz omen zekien guztia ateratzeko. Hernaniko geltokian trenera igo eta Rezolari ihes egiten laguntzeko agindua hartu zuen Luzearrek. Baita honek agindua ondo bete ere. Arzelus trenera igo eta, trenaren Donostirainoko bide laburrean, Rezolaren aurrean eseri zen eta, geltokira heldu zirenean, goardien akats batez aprobe txatu eta biok jende multzoaren artetik ozta-ozta hanka egin zuten.

Ekintza honek Luzearrentzat Iparralderantzako bidearen hasiera markatu zuen, ihesa gertatu zenetik Poliziak herstuki begiratu baitzuen. Beraz, azkenik, ihes egin behar izan zuen, Donostiako Udal Kutxan lanean ari zela poliziak lantokian bertan bere bila zetozela abisatu ziotenean. Eta polizia berehala San Jeronimo kaleko bere etxera joan zenean, Andres Arzelusek, etxe gaineko teilatutik ondoko etxera pasa eta, gau osoa Portu kalea ematen zuen auzokideen balkoian pasa zuen. Egunsentian, kontu handiz, auzokideen etxetik kalera jaitsi eta ihes egin zuen. Halere,

Iparraldera pasa aurretik, zazpi edo zortzi hilabetez Gipuzkoan zehar ezkutuan lanean aritu zen, eta barne Erresistentziaren ardura esku onetan utzi ondoren hartu zuen mugaz bestaldera pasatzeko erabakia, noizbehinka muga «hegoalderantz» pasa bazuen ere. Donostiara etorri zen batean, hain gustokoa zuen zarzuela bat ere ikusi omen zuen *Victoria Eugenia* antzokian, ondo mozorrotuta, noski. Betaurreko ilunaz eta biboteaz disimulatuta, Luzearrek hain aldatzen zuen bere itxura non, behin batez, Luis bere anaiak ez zuen Andres Donostiako kaleetan ezagutu.



Ander eta Amale, Amaletxo, Ander, Itziar eta Iñaki seme-alabekin, 1944an Ipar Euskal Herrian hartutako irudian



Estatu frantziarreko bere erbestean Ander Arzelusek izan zuen dokumentuetariko bat

Iparraldean ere irratigizon

Ipar Euskal Herrian, 1945. urtetik 1949an hil zen arte bizi izan zen Luzear. Ez zituen noski urte gogor haiek ezer egin gabe eman. Francoren komunikabideen lanari aurre egiteko (eta euskaldunen izpirituak suspertzeko –gerra galdu ondoren bazuten berpizteko premia!) EAJk nahitaezkoztat jo zuen irrati emisora aske bat lehenbailehen osatzea. Lan honen antolatzaile nagusia Joseba Rezola izan zen, eta *Radio Euzkadi-Euzkadi Irratia* osatzea bere esku geratu zen, lan honetan Arzelus bere lagunaren laguntza osoa izan zuelarik.

Euskaldunoi zein mundu osoari Euskadik bizi zuen egoeraren berri ematea zen irrati emisorearen funtzioa, idatzitako prentsan *Euzko Deyak* egin zuen antzera. Gerra zibilaren ondoren 1949an hil zen arte Andres Arzelusek eginiko lana hain izan zen handia historialariak bat datozela Luzear garai hartako

erresistentziaren pertsonaiarik garrantzitsuenetakoa izan zela esaterakoan.

Radio Euzkadi-ren lan taldeak Donibane-Lohizuneko *Villa Briseis*-en lan egiten zuen, irrati emisora Mugerreko abadearen etxean egon arren. Talde hau Iñaki Durañonak, Leonardo Salazarrek eta Luzearrek osatzen zuten. Lehenengo biek administrazio eta bulego lanak egiten zituzten. Arzelus, bere aldetik, irrati «euskararen arduraduna» zen. *Villa Briseis*-en, gainera, Balbino Barriola eta honen emaztea zen Dominika bizi ziren eta etxearen zainketaz arduratzen ziren.

Irratiaren antolatzea eta irratsaioak prestatzea erresistentzia-ekintzak baziren, entzutea bera ere erresistentzia bilakatu zen. Irrati saioen lehenengo urtea bete zenean, honela zioen garai hartan EAJk azaldutako berripaper batek: «Siguiendo el plan de intensificación a favor del euskera –para contrarrestar la labor



Amale Arrietak eta Ander Artzelusek bikote sendo eta irmoa osatu zuten bizitza osoan eta, bereziki, garairik latzenetan



Luzearrek bere bizitzaren azken momentura arte idatzi zuen. Minbiziaren aztarnak oso nabariak diren argazki honetan, idatzi eta idatzi ikusten dugu Ander, seguru asko euskaraz eta, seguruenik, bere betiko kezka izan zen Euskal Herriaren alde

desvasquizadora del franquismo— Radio Euzkadi, la emisora de la Resistencia vasca, ha comenzado a radiar clases de euzkera, en emisión diaria de un cuarto de hora, a las 7,45 de la mañana, en onda corta de 29'70 metros. Estas clases han obtenido una favorable acogida entre los radioyentes de la emisora clandestina vasca». Aipatu bezala, euskal irakaske-ta haien arduradun nagusia Andres Arzelus izateaz gain, Luzear emisoraren zuzendari ere izan zen, epe labur batez. Garai berean, EBBko presidenteorde izendatu zuten.



Minbiziak jota, Ander Arzelus-ek Lourdes bisitatu nahi izan zuen. Osasun fisikoa berreskuratu ez bazuen ere, bertako giroa ikusterakoan bere fedea sendotu egin zen

Poliziek ehortzi

Luzear Beiriz-eko *Ville Antoinette*-n hil zenaren berria arin hedatu zen donostiarren artean, 1949ko abuztuaren 27an. Eta frankistek, beren aldetik, abertzale honen ehorzketa eta hiletak oztopatzeko planak egin zituzten.

Hildakoaren familiar teko gehienek muga pasa ezin zutenez, Irungo Santiagoko zubian Luzearren zerraldoa zekarren autoa Donostiako hilerriraino lagundu zuten. Hilerrian, ordea, polizia ez zuten gorpua egun berean ehorzten utzi, lurperatzea biharamonean egingo zela esanaz. Haatik, goizez familiar tekoak hilerrira bertaratu zirenean, gorpua goizeko 7ak aldera ehortzita izan zela jakin zuten, ehorzketaren lekuko bakarrak poliziak, lurperatzaileak eta hauek exijitutako apaiza izan zirelarik.

Artzelustarrek hiletak Santa Mariako elizan goizeko 11etan nahi bazituzten ere, erretore jaunak —Segundo Garaialde ataundar karlista porrokatua, hain zuzen ere— hiletak goizeko 8,30etan egingo zirela adierazi zion familiari, Gobernadoreak honela aginduta. Erretorearen koldarkeria ikusita, familiak *Radio San Sebastián*-era deitu zuen, hiletan ordu aldaketaren berri eman zezaten eskatuz. Anjel Molina irratiko zuzendariak, Luzear oso eza-guna zuenez, familiaren eskea onartu eta hiletan ordu-aldaketaren berri eman zuen irratiz. Bere ausardia garestitxo atera zitzaion Molina jaunari, garai hartako 1.000 pezetako isunaz zigortu baitzuen Gobernadoreak.

Karmeldarren elizan. Era honetan, hileta bakar baten ordeztu bi izan zituen azkenik Andres Arzelus Toledo *Luzearrek*, euskal kazetarion aitzindaririk nagusinetakoak.



Kilbir aberstia
Grundera antebestia
Luzar-Bungen

Arzelus'tar Ander
"LUZEAR" i
omenaldia



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Arzelus familia*
- *Sabino Arana Fundazioa. Abertzaletasunaren Agiritegia*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko urria

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-2027-9 (Lan osoarena)
84-457-2031-7

L.G.: S-***-2003